



**293/2025 EBAZPENA, azaroaren 10ekoa, Arabako osasun mentaleko sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako osasun mentaleko sareko Zabalganeko osasun mentaleko zentroko atal sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen duena.**

### AURREKARIAK

Arabako osasun mentaleko sareko zuzendari-gerentearen irailaren 9ko 192/2025 Ebazpenaren bidez deialdi publikoa egin zen Arabako osasun mentaleko sareko Zabalganeko osasun mentaleko zentroko atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko urriaren 2ko EHAA 187. zk. eta 2025eko urriaren 16ko BOE 249. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko azaroaren 6an amaitu zen.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaituta, Arabako osasun mentaleko sareko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko. Gainera, 10 egun balioduneko epea ezarriko du, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko administrazio-bidean.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

### EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Arabako osasun mentaleko sareko Zabalganeko osasun mentaleko zentroko atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa aurkez dakioko Arabako osasun mentaleko sareko Zuzendaritza Gerentziari, 10 egun balioduneko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 10ea.

Arabako osasun mentaleko sareko zuzendari-gerentea  
EB (311/2023) Ebazpena, azaroaren 22koa)

Langileen zuzendaria  
  
ANDREA SALINERO BERASALUCE



Osakidetza

## I ERANSKINA

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ZABALGANEKO OSASUN MENTALEKO  
ZENTROKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- JESUS MARIA RUIZ AGUADO

Baztertuen behin-behineko zerrenda:

- Inor ez